presente escritura de **MODIFICACION DE ARTICULOS ESTATUTARIOS**, a cuyo efecto,===========================

==============**OTORGA**:==============

Que eleva a público los acuerdos adoptados por el Patronato de la Fundación en su reunión de fecha 16 de Junio de 2011, de que informa la certificación incorporada a esta matriz y, en su consecuencia:=========================

PRIMERO.- Al objeto de establecer con la forma "BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA" la denominación en Euskera de "MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO", señalada por Euskaltzaindia como más apropiada y correcta en la lengua vasca del texto en castellano, se **MODIFICAN** los artículos 1, 4, 5, 13, 16 y 19 de los Estatutos vigentes por los que se rige la Fundación en los términos que se indican en la certificación incorporada, los cuales quedan con el tenor literal que resulta de los acuerdos Primero y Segundo de la mencionada certificación, dándose aquí por íntegramente reproducidos en evitación de inútiles repeticiones.====================

SEGUNDO.- Se solicita del Registro de Fundaciones del País Vasco se sirva inscribir el contenido de la presente escritura.==========

**LEY 10/2010, de 28 de Abril.-** Yo, el Notario, hago constar expresamente que he cumplido con la obligación de identificar al "titular real" que impone la Ley 10/2010, declarando a tal efecto, el representante de la "FUNDACION MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO", que no hay titular real, al no haber en su representada, persona física titular de un porcentaje superior al veinticinco por ciento del capital social.=========================

Leída esta escritura conforme a lo dispuesto en el Artículo 193 del Reglamento Notarial y formuladas las advertencias contenidas en el mismo, queda informado y acepta la incorporación de sus datos a los ficheros automatizados existentes en mi Notaría, que se conservarán en ella, con carácter confidencial, sin perjuicio de las remisiones de obligado cumplimiento, de conformidad con lo que dispone la Ley Orgánica 15/1999, presta su consentimiento y la firma conmigo, el Notario,

**ALDATZEKO** eskritura hau gauzatzeko besteko legezko ahalmena du. Ondorio horretarako,=======================

==== **HONAKO HAU EGILETSI DU**:======

Fundazioaren Patronatuak 2011ko ekainaren 16ko bileran hartutako eta agiri nagusi honi gehitutako egiaztagiriak jakinarazten dituen erabakiak publiko egin ditu, eta, ondorioz:===================

LEHENENGOA.- "BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA" forma "MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO" formaren euskarazko izendapen gisa ezartzeko helburuaz, Euskaltzaindiaren arabera itzulpen egokiena eta zuzenena baita, Fundazioa arautzen duten eta indarrean dauden Estatutuen 1, 4, 5, 13, 16 eta 19. artikuluak **ALDATZEN** dira, gehitutako egiaztapenean jasotzen diren baldintzetan. Horiek aipatutako egiaztapenaren Lehenengo eta Bigarren erabakietan daude jasota hitzez hitz, eta, alferrikako errepikapenak saihesteko, aipatutzat emango dira osorik.==========

BIGARRENA.- Euskal Herriko Fundazioen Erregistroari eskatzen zaio eskritura honetan jasotako edukia inskribatzeko.==========

**10/2010 LEGEA, apirilaren 28koa.-** Nik, Notarioak, beren-beregi jaso dut 10/2010 Legeak ezartzen duen "titular erreala" identifikatzeko betebeharra bete dudala; xede horretarako, "BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA" delakoaren ordezkariak adierazi du ez dagoela titular errealik, izan ere, ordezkariak, pertsona fisiko titularrak, ez dauka kapital sozialaren ehuneko hogeita bost baino gehiago.======

Eskritura hau irakurrita, Notarioen Araudiaren 193. artikuluan xedatutakoaren arabera eta bertan jasotako ohartarazpenak eginda, informatuta geratu da eta onartu egin du bere datuak nire Notariotzako fitxategi automatizatuetan sartzea. Datuak bertan gordeko dira, isilpean, bete beharreko bidalketen kalterik gabe, 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz. Bere onespena eman eta nirekin, notarioarekin, sinatu du. Era berean, fede ematen dut

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 4315557 B

que doy fe de haberme asegurado de la identidad del compareciente por cotejo de su Documento Nacional de Identidad, de que el consentimiento ha sido libremente prestado, de que el otorgamiento se adecua a la legalidad y a la voluntad debidamente informada del otorgante o interviniente, y de todo lo demás consignado en este instrumento público, extendido en tres folios timbrados de la serie N-B, números: el del presente y los dos posteriores en orden numérico.=====================

agertutakoaren nortasuna ziurtatu dudala, Nortasun Agiri Nazionala erkatuz, onarpena askatasunez eman duela, eta, azkenik, egilespena bat datorrela legearekin eta, behar bezala informatu ondoren, emaile edo parte-hartzailearen borondatearekin. Halaber, agiri publiko honetan jasotako guztiaren fede ematen dut. Agiri publikoa hiru orritan egin da eta zigiluak dituzte, N-A seriekoak, eta honako hauek dira zenbakiak: honako honena eta hurrengo biak, zenbakizko ordenan.========

José María Eguía.------------------------------

Rubricado.-----------------------------------

Signado: -----------------------------------

José Antonio Isusi.----------------------------

Rubricado.-----------------------------------

Y.-------------------------------------------

Sellado.-------------------------------------

D.A. 3º Ley 8/89 – Nºs Arancel: 1-4-5-6-7

DOCUMENTO UNIDO.------------------------------

---------------------------------------------

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Museo Plaza, 2
48009 BILBAO
Tel. 94 439 60 60
Fax 94 439 61 45

JOSÉ MARÍA EGUÍA CALVIÑO, Secretario del Patronato de BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

CERTIFICO:

Que en reunión del Patronato de la Fundación, celebrada en primera convocatoria el día dieciséis de junio de dos mil once, en Bilbao, Plaza del Museo nº 2, con asistencia de sus miembros:

| | |
|---|---|
| Presidenta: | Dña. María Blanca Urgell Lázaro, Consejera de Cultura del Gobierno Vasco |
| Vicepresidente: | D. Iñaki Azkuna Urreta, Alcalde de Bilbao |
| Patronos: | D. Iñigo Camino García, en representación de Editorial Iparraguirre, S. A. |
| | D. Federico San Sebastián Flechoso, en representación de Iberdrola, S. A. |
| | D. José María Oleaga Zalvidea , en representación de Metro Bilbao, S. A. |
| | D. Francisco José Arratibel Suquia, en representación de Euskal Irrati Telebista |
| | D. Iñigo Barrenechea Lombardero, en representación de Diario El Correo, S. A. |

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.3 de los Estatutos de la Fundación, D. José Luis Bilbao Eguren, Diputado General de Bizkaia, ha conferido su representación a D. Iñaki Azkuna Urreta, conforme a la comunicación dirigida a tal fin que queda incorporada al acta de la reunión.

Estando también presentes, además de los citados al encabezamiento, D. José María Eguía Calviño, Secretario del Patronato, y D. Javier Viar Olloqui, Director de la Fundación.

Se adoptaron por unanimidad, al objeto de establecer con la forma "Bilboko Arte Ederren Museoa" la denominación en Euskera de "Museo de Bellas Artes de Bilbao", señalada por Euskaltzaindia como más ~~apropiada y correcta en la lengua vasca del texto en castellano,~~ los siguientes acuerdos:

Primero.- Modificar el artículo 1 de los vigentes Estatutos de la Fundación, en su redacción en castellano, que pasará a quedar redactado con el literal que seguidamente se expresa:

> *"Artículo 1.- Constitución, denominación y duración.*
>
> *El Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao constituyen una fundación cultural privada, denominada "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao-Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa" (en lo sucesivo Fundación), al amparo de lo previsto en el artículo 34 de la Constitución española, y de acuerdo con cuanto establecen las demás disposiciones legales vigentes, sin ánimo de lucro, de carácter permanente y duración indefinida.*
>
> *Sin perjuicio de la denominación señalada en el párrafo anterior, se considerará igualmente como tal, la empleada exclusivamente en una de las dos lenguas en que viene expresada, cuando se haga en un documento redactado en la correspondiente lengua.*

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 4315556 B

NOTARIA DE D. JOSE ANTONIO ISUSI EZCURDIA - BILBAO -

Segundo.- Modificar los artículos 1; 4; 5; 13 (apartado tercero); 16 (letras e) y g) del apartado segundo); y 19 (apartado tercero) de los vigentes Estatutos de la Fundación, en su redacción en euskera, que pasarán a quedar redactados con el literal que seguidamente se expresa:

*"1. artikulua - Eraketa, izena eta iraupena.*

*Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak fundazio kultural pribatua eratu dute, "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao-Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa" (aurrerantzean Fundazioa), hain zuzen ere. Egin ere, Espainiako Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakoaren babesean eta indarrean dauden legezko gainerako xedapenek ezarritakoarekin bat etorriz egin dute. Fundazioak ez du irabazi asmorik, izaera iraunkorra du eta iraunaldi mugagabea.*

*Aurreko paragrafoan adierazitako izenaren kalterik gabe, izentzat hartuko da, halaber, izena adierazteko erabilitako bi hizkuntzetako batean baino ez badago, hizkuntza horretan idatzitako agiri batean idazten denean.*

*4. artikulua.- Egoitza.*

*Fundazioaren egoitza Bilboko Arte Ederren Museoan egongo da, Museo plazaren 2. zenbakian.*

*5. artikulua.- Fundazioaren xede eta helburuak.*

*1. "Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa"k ondoko xedea dauka: Bilboko Arte Ederren Museoaren zuzendaritza, mantenimendua, artapena eta sustapena. Antzinako artea nahiz arte modernoa eta garaikidea bildu, artatu eta erakutsiko du, izaera unibertsalarekin eta askotariko diziplinaduna, gizartea arteaz hezteko bitarteko izan nahian.*

*2. Horretarako, ondoko helburuak ezarri dira:*

*a) Bilboko Arte Ederren Museoaren bilduma artatu, aztertu eta erakustea.*

*b) Etengabe aberastea, kalitateko elementu interesgarri berriak eskuratuz.*

*c) Antzinako artearen nahiz arte moderno eta garaikideko erakusketen egitaraua antolatzea, nazioartean garrantzi handikoa eta euskal arteari arreta berezia eskainiko diona.*

*d) Bilbo, Bizkaia eta Euskal Herriaren irudia mundu zabalean ezagutaraztea.*

*e) Beste jarduera osagarri batzuk egitea, besteak beste, kultur adierazpenak, hitzaldiak, liburu, katalogo nahiz beste argitalpen batzuk, bekak eta dirulaguntzak ematea eta, oro har, antzeko beste edozein jarduera, beti ere, bateragarriak baldin badira Fundazioaren xedeekin.*

*f) Museoen kudeaketan profesional gaituak trebatzen laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoan.*

*g) Aurrekoekin lotuta egokitzat jotzen diren gainerakoak.*

*13. artikulua.- Bilerak eta deialdia.*

*1. Presidenteak behar beste aldiz deitu ahal izango du Patronatua, bai bere ekimenez bai Patronatuko kideen herenak hala eskatuta. Nolanahi ere, Patronatua behin bilduko da gutxienez urteko lehenengo seihilekoan, azken ekitaldiko kontuak onartzeko, eta beste behin bigarren seihilekoan, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onesteko.*

*2. Bileretarako deialdiak idazkariak bidaliko ditu Patronatuaren ordezkari gisa, babesle bakoitzari bidaliko dion jakinarazpenaren bidez, eta gutxienez 10 egun lehenago helduko*

dela bermatzen duen edozein bideren bidez. Jakinarazpenean bilera zein egun, ordu eta tokitan izango den azalduko da eta aztergaien zerrenda ere zehaztuko da.

3. Batzorde Betearazleko kideak eta Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria joan ahal izango dira Patronatuaren bileretara, hala eskatzen zaienean. Horiek parte hartu ahal izango dute bileretan gertatzen diren eztabaidetan, baina ez dute boto eskubiderik izango erabakiak hartzeko.

18. artikulua.- Batzorde Betearazlea.

1. Batzorde Betearazleak, Patronatuak beren-beregi galdekapena egiten duenean izan ezik, Fundazioaren kudeaketa, gobernu, adminis-trazio eta ordezkaritzako eginkizunak izango ditu, baldin eta legez Patronatuari ez badagozkio eskuordetu ezineko moduan.

2. Bereziki, Batzorde Betearazleari dagokio:

a) Zuzendariak proposatuta, Jarduketa Plana eta urte askotarako edota urteko aurrekontuak onestea.

b) Zuzendariak proposatutako arte-programazioa onestea.

c) Artelanak eskuratzeko proposamenak onestea eta gordailu, dohaintza eta ondareak onartzea.

d) Museoaren funtzionamendurako arauak onestea.

e) Bilboko Arte Ederren Museoaren eta beste Zentro eta Museo batzuen arteko lankidetza proposamenak onestea ondoko eginkizunak garatzeko: artapena, ikerketa, heziketa, erregistroa, diseinua, informazio-zerbitzuak, fondoak hartzea, bai eta administraziokoak eta Museoa kudeatzeagatik sor daitezkeen gainerako guztiak ere.

f) Fundazioaren esku dagoen arte-ondarea aldi baterako lagatzea onestea.

g) Erakunde fundatzaileekin sinatutako akordioetatik "Bilboko Arte Ederren Museoa"rentzat eratorritako beste edozein ahalmen.

h) Batzorde Aholkuemaile Artistikoa izendatu eta kargutik kentzea.

i) Estatutu hauen arabera, Fundazioaren beste organo bati eratxikita ez dauden ahalmen guztiak.

19. artikulua - Bilerak eta deialdia.

1. Presidenteak nahi beste aldiz deitu ahal izango du Batzorde Betearazlea, bai ekimen propioz bai batzordeko kideen herenak hala eskatuta, eta, nolanahi ere, seihilero behin, Patronatuaren bilerak egin baino lehen.

2. Bileretarako deialdiak idazkariak bidaliko ditu presidentearen ordezkari gisa, Batzorde Betearazlearen kide guztiei jakinarazpen bana bidaliz, iristen zaiela bermatzen duen eran; gutxienez 10 egun lehenago bidali beharko ditu jakinarazpenak, eta bilera zein egunetan, ordutan eta tokitan izango den zehaztu beharko du, bai eta aztergaien zerrenda zein izango den zehaztu ere.

3. Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendaria Batzorde Betearazlearen bileretara joan ahal izango da. Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendariak parte hartu ahal izango du bileretan gertatzen diren eztabaidetan, baina ez du izango boto eskubiderik erabakiak hartzeko."

Foru Seilua
Timbre Foral

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 4315555 B

NOTARIA DE D. JOSE ANTONIO ISUSI EZCURDIA - BILBAO -

Tercero.- Facultar a la Sra. Presidenta y al Secretario de la Fundación, así como a su Director, con poder tan amplio como en derecho se requiera, para que, indistinta y solidariamente, comparezcan ante Notario y eleven a público el presente acuerdo, y realicen cuantos actos sean necesarios para su aprobación por el Protectorado y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco.

Así resulta del Acta de la reunión, pendiente de ser aprobada por el Patronato, celebrada en virtud de la convocatoria efectuada por su Presidencia con fecha 1 de junio de 2011, conforme al siguiente orden del día:

1. Lectura y aprobación del Acta de la anterior reunión.
2. Presentación y aprobación del Inventario, Balance de Situación, Cuenta de Resultados, Liquidación del Presupuesto de Gastos e Ingresos y Memoria de Actividades del ejercicio 2010.
3. Subrogación de la Fundación BBVA en la posición del Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S. A. Cese como Patrono del Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S. A. y designación en su lugar del Director de la Fundación BBVA.
4. Cese de Iberdrola, S. A. como Patrono de la Fundación. Nuevo convenio de colaboración suscrito con Iberdrola Distribución Eléctrica, S. A. U. y designación de la misma como Patrono de la Fundación.
5. Cese de El Corte Inglés, S. A. como Patrono de la Fundación. Renovación del convenio de colaboración suscrito con El Corte Inglés, S. A. y designación de la misma como Patrono de la Fundación.
6. Modificación de los Estatutos de la Fundación.
7. Movimientos de obras de la colección.
8. Donaciones y depósitos de obras de arte.
9. Ofertas de obras de arte.
10. Informe del Director.
11. Ruegos y preguntas.

Y para que conste y surta los oportunos efectos, expido la presente certificación en Bilbao, a diecisiete de junio de dos mil once.

El Secretario
José María Eguía Calviño

Vº Bº La Presidenta
María Blanca Urgell Lázaro